



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Koreomania: dantza eta gaitza

Bernburg (Alemania), 1020ko abenduaren 24a. Hamazortzi herritar kontrolik gabe kantuan eta dantzan hasi ziren herriko eliza nagusiaren inguruan, eta Gabon eguneko meza eten zuten. Fenomeno horri koreomania esaten zaio, baita korea, dantzaren gaixotasuna edo San Bitoren dantza ere –gaitza santu horren madarikazioak eragiten zuela uste baitzuten batzuek–.

Berbungen gertatutakoa koreomaniaren deskribapen zaharrenetakoa da, baina ez zaharrena. Koreomaniaren lehen aipamena VII. mendekoa da. Agerraldi nabarmenak, ordea, Behe Erdi Aroan gertatu ziren, horietako asko Alemanian. 1237an haur talde bat Erfurt-etik Arnstadt-erako 20 km-ko bidea dantzan eta saltoka egin zuen. 1278an 200 pertsona inguru bildu ziren Mosa ibaiaren zubi baten gainean dantzan, zubia eraitsi arte. Dantza epidemiarik larrienetakoa Akisgranen hasi zen 1374ko San Joan egunean eta Flandriara, Italiara eta Luxenburgora zabaldu omen zen. 1518koa, aldiz, Strasburgon hasi zen uztailean: Frau Troffea izeneko emakume bat dantzan hasi zen kalean, lau egunetan 33 dantzakide gehitu zitzaizkion, hilabetean 400era iritsi ziren eta horietako asko bihotzekoak jota hil omen ziren. Askok uste zuten gaixoei musikaz laguntzeak sendatuko zituela, baina gehiengotan sintomak larritzea eragin zuen.



PIETER BRUEGHEL GAZTEAREN (1601-1678) DANTZA MOLENBEEK-EN LANAK MUSIKAZ SENDATZEN SAIATU ZIREN KOREOMANIA AGERRALDIA IRUDIKATZEN DU.

XVII. mendearen erdialdetik aurrera ez dago ia gaixotasunaren aipamenik; salbuespena Madagaskarreko 1840ko agerraldia da.

Adituak ez datoz bat fenomenoaz alizerakoan. Hipotesietako batek dio ergotismoa zela kausa, hau da ainoak pozoituta hasten zirela dantzan. Entzefalitisa, epilepsia eta tifusa ere aipatu izan dira. Baina askok, osasun arazotzat baino, fenomeno sozialtzat dute koreomania. Agerraldiak garai latzetan, uzta txarren edo izurriteen ondoren piztu ohi ziren. Batzuek sekta erlijiosoekin lotu dituzte. 1997an K. Hethe-

rington eta R. Munrok “estres partekatuari” egotzi zioten nahasmendua.

Italian tarantismo esan zioten antzeko fenomeno bati, dantzarako grina armiarman helduak eragiten zuela uste baitzuten; tarantela izeneko dantza tarantismoa sendatzeko sortu zen. R.E. Bartholomew-ren ustez, tarantismoak eta gaitzaren sendabideak herritarrei “garai hartan debekatuak zeuden jarrera askatzaileak izateko aukera eman zien. Alegia, garai gogorretan barrenak hustu eta estresa arintzeko aukera zen. Eta hori oso kutsakorra da. ●



Sportula, gabonetako saskia antzinako Erroman

Eguberritako saskiek jatorri paganoa dute, Eguberriek beraiek bezalaxe. Antzinako erromatarrak Saturnalia ospatzen zuten abenduan, neguko solstizioaren inguruan. Saturnoren jaien barruan, *salutatio matutina* izeneko zeremonia egiten zuten:

jauntxo eta ugazabek hain babespeko “bezeroei” (*cliens*) pikuz, ereinotzez eta bestelako jaki bereziez osatutako sorta oparitzen zieten, zumezko saski batean sartuta. Saturnaliako produktu sorta horri *sportula* edo “saskitxo” esaten zioten. ●